EGUN OSOKO JAIALDIA, AITZAGA ELKARTEAREN 30. URTEMUGA OSPATZEKO

Olaia Inziarte, Delirium Tremens eta Zea Mays taldeen kontzertuak borobilduko du larunbateko festa / **11**

ARGAZKIA: GOIENA

NOAUA

Txaramuntoko behin behineko pasabideak Etxealdiako zubia ordezkatuko du / 03

NOAUA

"Ezinbestekoa da erraustegian gertatzen dena etengabe neurtzea" / 06

NOAUA

"DBH2ko ikasleok gonbidatu nahi zaituztegu zaborra lurrera ez botatzera" / 14

NOAUA

Paperezko zapiak oihalezkoengatik aldatu dituzte Zubietako Eskolan / 20

B&a
Inmogest
Finka administratzailea
Aholkularitza zerbitzua
Inmobiliaria
Aseguruak
943 57 36 93
Eusko Gudari 35, Orio

G15 GIPUZKOA HIGIEZINA ELKARTEA
G15 USURBIL
HIGIEZINA | INMOBILIARIA
5. URTEURRENA!
MILA ESKER ZUEN KONFIDANTZAGATIK!
SALEROSKETA & ALOKAIRUAK
Zugandik GERTU behar duzun GUZTIRAKO
688 739 733 info@g15usurbil.eus
Etxebeste Kalea 15 - USURBIL

EHZ HEMENDIK!
EKAINAK 28.29.30 JUIN
ARBERATZE-ZILHEKOA
NOAUA!ko bazkideen artean bi sarrera zozkatuko ditugu
EHZ HEMENDIK!
EKAINAK 28.29.30 JUIN
ARBERATZE-ZILHEKOA

Noaoa BIDAIAK
Plugia
(Italia)
IRTEERA 2024ko urria
Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.
943 37 36 13 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria

Txaramunton ipini duten behin behineko pasabideak ordezkatuko du Etxealdiako zubia

Tren geltoki berriko lanak tarteko, Etxealdiako zubia eraistera doaz. Zubi berri batek ordezkatuko du Etxealdiakoa eta trenbide gainetik igaroko da. Modu horretan, Atallu eta Santuenea ingurua Kaxkoarekin lotzen zuen tren pasabide arriskutsua ezabatu egingo da. Horrekin batera, irisgarritasuna bermatuko du altuera handiagoa izango duen zubi berriak. Eskilarez gain, igogailu bidez heldu ahalko gara tren geltoki berrira.

Zubi berria eraiki arte, Txaramuntoko behin behineko pasabidea erabili beharko da.

Etxealdiako zubia bota egingo dute. Berria eraiki bitartean, Txaramuntoko pasabide hau erabili beharko da.

Garbigune mugikorra, Santuenean

Maiatzaren 30etik aurrera, garbigune mugikorra Santuenean izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Ekainaren 6an garbigune hau Kalezarrera eramango dute.

Europako hauteskundeei begirako kanpaina

Ekainaren 9ko Europako hauteskundeei begirako kanpaina martxan da. Posta bidez botoa ematea eskatzeko epea maiatzaren 30ean itxiko da. Eskaera egoki egiten dutenek, ekainaren 6ra arte izango dute modu horretan botoa emateko aukera.

1964an jaiotakoen bazkaria ekainaren 1ean izango da

Bazkaria Atxega jauregian egingo da. Izen-emateko epea ere finkatua zuten; maiatzaren 15era arte, 647 458 997 telefonora deituz (Mari Jose). Horra deituta jaso ahalko dira ordainketa nola egin nahiz hitzorduari buruzko argibide gehiago.

Ikastolaren Eguneko bazkarirako txartelak salgai

Udarregi Ikastolaren Eguna ekainaren 8an ospatuko da. Bazkaria frontoian egingo da. Txartelak ordea, maiatzaren 31 baino lehen erosi behar dira, 8:00-13:00 artean, idazkaritzan. Edota maiatzaren 29an eta 30ean, 16:30-17:00 artean, Agerialdeko jolastokian.

noaua
TOKIKOM

Argitaratzailea: Noaua Kultur Elkartea
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria: Idoia Torregarai.
Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua: Aritz Lasarte, Itxaso Orbegozo, Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna: Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzaileak: Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Imprimategia: Antza inprimategia. Zirkuitu ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako: erredakzioa@noaua.eus

Gipuzkoako Foru Aldundia

Usurbilgo Udala

IRITZIA

UGAITZ AGIRRE

Azalaldatzen (8)

Urduri nengoen, nor ez da jarriko Euskadi irratiko Landaberri saiora deitzean? Birritan deitu behar izan nuen, ez baitzen deia sartzen. Identitate faltsu bat asmatu, eta ahotsa distortsionatu. Ez nuen nahi ezagutu nezan. Halako batean, zuzenean sartuko nindutela esan, eta dardarizo batek astindu ninduen. Gaiztakeriatan ari ote nintzen? Ez. Gaiztakeriatan beste norbait zebilen, eta nik hura deskubritu nahi nuen. Horretan datza idazlearen lanak.

Eta azalaldatze guztiak direnez zerbaitenak, hau ere, idazle gezurtiarena, baina bigarren fasea.

"Egun on, Jakoba. Galdera bat zeukaat hiretzat", hasi nintzen. Hitanoak konfiantza adierazten duenez, agian, probetxuzkoagoa litzatekeen. "Etxe ondoan bazeukaat sagarrondo bat", ziurrenik jada jakingo zuen nondik zihoan galdera. "Etxeko paretak pitzatzen hasiak dituk, eta akaso, kimatzeko tenorea iritsi zaiek". Hasperen hotsa aditu nuen telefonoaren beste aldetik. Jakin banekien zein izango zen haren erantzuna. Izatez, Euskal Herri guztiak daki, baina tematuta jarraitzen dute herritarrek zuhaitzak kimatzean. "Utz iezaiok sagarrondoari bakean. Nahi dianean kimatuko duk bera bakarrik". Txirritak ere halakorik esan zion hargin andaluzari.

Kimatzeak sagarrari eragiten al dion jakin nahi izan nuen, ea fruitua okertzen zuen edo bestelako konturik. Ez zidan erantzun balekorik eman. Adiktibo hitza aipatu nionean, eskandalizatu eta guzti egin zen, ea nondik ote nentorren galdezka hasi zitzaidan. "Adiktibo naturalak ere badaude", esan nion. "Sagarra produktu naturala duk, nola sortuko dizkik adiktiboak?". Harpa jotzen ari nintzelakoan edo, deia mozteko agindu zion kontrolekoari, eta handik gutxira eten zen seinalea.

Berriro ere deitzen saiatu nintzen, baina alferrik. Amore eman orduko, ordea, telefonoa jo eta jo hasi zen. Ez neukan zenbakia gordeta, eta beldurra eman zidan. Duda-mudatan hartu ala ez, azkenerako, adorez busti eta "Bai, esan?" batez hasi nuen elkarrizketa.

Jakoba Errekondo bera zen linearen beste aldean. Hautsak gehiegi harrotzen ari nintzela, eta gauzak bere horretan uzteko agindu zidan. Non bizi nintzen, nondik ibiltzen nintzen eta gainerako informazio erabilgarri gehiago bazeukatela, beraz, jolasa amaitu zela. Une batez, inteligentzia-agentzia batekin hizketan ari nintzela pentsatu nuen, edo mafiaren batekin akaso.

"EZ NUKE ESANGO ATSEGINEZ HARTU NINDUENIK ERREKONDOK, BAINA HERRIKO SAGARDO--EKOIZPENAREN MISTERIO GUZTIAK ARGITU ZIZKIDAN"

Izatez beldurtia naiz, baina ez dakit zergatik, jakin-minak erakarpen-indar handia zeukan. Hordagoa bota nion: kontuaz jakin nahi nuen, eta hitzordua jarriko genuela. Nire posizioa indartze aldera, baliagarria izan nintekeela arrazoitu nuen.

Isilaldi laburra baiezkoarekin amaitu zen. Antza, limurtzea lortu nuen. Baserrian jarri zuen hitzordua, eguna eta ordua zehaztu zizkidan. Egiari zor, kaka eginda joan nintzen hara. Ez nekien zer topatuko nuen, eta badaezpada, nori edo nori kontatu nion zein neukan arratsalde hartako plana. Gauzak okertzen baldin baziren.

Ez nuke esango atseginez hartu ninduenik Errekondok, baina herriko sagardo-ekoizpenaren misterio eta zertzelada guztiak argitu zizkidan bakarrizketa teknikoan. Informazio gehiegi garunean sailkatzeko. Halere, adiktiboaren kontua egia zen: herritarrak kontrolatzeko substantzia zen. Sagardoaren kontsumoa handitu asmoz hasi zen guztia, baina ohartu ziren jendearen portaeran ere eragin zezakeela. Botereak jendea usteltzeko joera dauka, eta sagar ustelekin sagardo txarra ateratzen omen. Horregatik, herriko sagar ustelak ezabatu beharrean sentitu ziren. "Eta eskerrak eman, hire idatziek gauzak asko arindu zizkigutek". Lausengua ote?

Emakumeon Topaketa, bertan behera

Iragan larunbaterako Kalezarko Pelaioenean kokaturiko Emakumeon Etxean iragarria zuten Usurbilgo Emakumeon Topaketa bertan behera utzi zuten. Aurrerago egitekoak dira. "Data berri baten bila dabiltza, uda osterako: zehaztu bezain pronto jakinaraziko dute", ohartarazi dute Usurbilgo Emakumeon Etxeko talde sustatzailetik. Adi, halere, datozen deialdi hauei:

Ekainak 5/uztailak 10, asteazkena
15:00-18:00 Aholkularitza juridikoa eta psikosoziala Kalezarko Pelaioeneako Usurbilgo Emakumeon Etxean.

Ekainak 10/24, astelehena
17:00-19:00 Sexu-aholkularitza zerbitzua Kalezarko Pelaioeneako Usurbilgo Emakumeon Etxean.
Hitzordua eskatzeko:
650 232 714
943 377 112
info@xelebreak.com
emakumeonetxea@usurbil.eus

Ekainak 12, asteazkena
18:30 Karmele Jaioren "Maitasun kapitala" liburuaren aurkezpena Emakumeon Etxean. Gonbidapenak usurbilkultura.eus plataforman eskuragarri.

Informazio gehiago:
Belmonte kalea, 8
943 377 112
emakumeonetxea@usurbil.eus

Antolatzailea: Usurbilgo Emakumeon Etxea.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
·PLATER KONBINATUAK
·BOKATAK ·PINTXOAK
TABERNA
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patri
Patrietxea Jatetxea
· bazkariak EGUNERO
· afariak ostirala eta larunbata
✆ 943 362725 · ✆ 688 690 361

Zumarte Musika Eskolako biolin, eskusoinu eta trikitixa-panderoko ikasleak Tolosan izan ziren aurreko astebukaeran, 'Musikaldi' jaialdian parte hartzen. ZUMARTE

Ostiral honetan amaituko da Zumarten matrikulatzeko garaia

2024/2025 ikasturteko eskaintza oparoa izango da. Aurreko astean prezioetan igoerarik ez dela izango idatzi genuen. Baina ez da zuzena. Prezioek igoera bat izango dute.

Musika eskaintza

Musika txokoa, musika mintzaira, tronpeta, tronboia, saxofoia, biolina, perkusioa, klarinetea, eskusoinua, trikitixa, panderoa, pianoa, txistua, gitarra, flauta, organoa, kantu modernoa, abesbatza eta talde instrumentalak.

Matrikulen prezioa

Ikasgaiak:
• Musika Txokoa (4-5-6-7 urte): 147 euro.
• Musika Txokoa+instrumentua: 294 euro.
• Musika Mintzaira : 147 euro.
• Instrumentua: 147 euro (Panderoa: 85 euro.)**
• Musika Mintzaira+instrumentua: 294 euro.

Musika Mintzaira edo instrumentua egiten ez duten ikasleak:
• Abesbatza bakarrik: 85 euro.
• Talde instrumentala bakarrik: 85 euro.
• Abesbatza+taldea edo 2 talde: 115 euro.

** Hor zehaztutako kopuruaz gain, instrumentuko ikasleek ikasturtean zehar 32 euroko 10 kuota ordaindu beharko dituzte eta talde instrumentala bakarrik egiten dutenak 6 eurotako 10 kuota.

Ordainketa

Plaza kopuruen zozketak egin eta onartutako ikasleen zerrendak argitaratu ondoren, matrikulazioan adierazitako kontu korrontetik,"ikaslea onartua izan den ikasgaien matrikularengatik ordaindu beharreko tasaren %10 kobratuko zaizue ekaina bukaeran , %40 iraileko lehen astean eta %50 abendu hasieran". Zumartek aditzera eman duenez, plaza banaketaren arautegia aplikatuko da.

Hobariak

Familia ugarietan eta unitate familiar bereko 3 senide edo gehiago matrikulatuta dauden kasuetan, hobariak izango dira.

Ordutegiak

Instrumentuen kasuan, ikasle eta irakaslearekin behin-behineko ordutegiak bilera bidez adostuko dira.

Musika Txokoa, Musika Mintzaira, Kantu Kantari eta Abesbatzak taldeen ordutegiak aldiz, dagoeneko zehaztuta daude zumarte.eus web orrialdean.

Zumarteko instrumentuak baliatzeko aukera

Instrumentua ikasten hasten direnen artean, tronboia, saxofoia, tronpeta, flauta, klarinetea edo biolina ikasten hasten direnei, nahi izanez gero eta ikasleentzat egokiak badira (tamaina eta abar), Zumartek dituen instrumentuak urtebetez utziko zaizkie.

Matrikulatzeko moduak

• Internetez egin daiteke, zumarte.eus web orrialdean topatuko dituzue xehetasunak.
• Zumarteren bulegoan (Kale Nagusia, 43). Kasu honetan, eskuz bete beharko da matrikulazioari dagokion inprimakia. Modu presentzialean egin nahi duenak bi egun hauek ditu aukeran: asteartea edota osteguna. Bi kasuetan, hauxe ordutegia: Goizez, 10:00etatik 12:30era. Arratsaldez, 18:00etatik 19:00ak bitartean.

ZUMARTE.EUS WEB ORRIALDETIK EGIN DAITEKE MATRIKULAZIOA

Igandean, kalejira

Igande honetan, kalejira goizeko 11:30ean hasita. Zumarteko eta Altsasuko musika eskolako saxofoi taldeak kalejiran aterako dira.

Sormen tailerra Zorione Mendezekin

Sutegi udal liburutegiak Zorione Mendezen sormen tailer bat iragarria zuen ekainaren 7rako. 'Denok superheroi' izenburupean, eta 8-10 urte bitarteko haurrei zuzendua. Tailerra ostiral honetara aurreratu dute ordea, 17:30ean hasita. Aurretik eman behar da izena.

Ekainak 4, asteartea
• 19:00 Javier Cercasen 'El Movil' liburuari buruzko gaztelarazko solasaldia gidatuko du Ana Merinok. Liburu honen aleak Sutegin eskuragarri.

Aste hasieran, ToxicoWatch-eko ordezkariek Sutegin eginiko agerraldia.

Zubietako erraustegi ingurua, nabarmen kutsatuagoa

ToxicoWatch fundazioko zientzialariak gure artean izan dira egunotan, 2019az geroztik Zubietako erraustegiak inguruan izandako eraginari buruz eginiko ikerlanari buruzko emaitzak aurkezten. Planta horren bueltan kutsadura nabarmen hazi dela jakinarazi zuten aste hasieran Sutegin.

Ikusmina eragin zuen aste hasierako Sutegiko ekitaldiak. Argi utzi nahi izan zuten antolatzaileek hasieratik, helburua ez zela ez beldurtzea, ezta etsipena sortzea ere, "ezkutuko egiak" azaleratu eta erraustegia geratzeko borrokan indartzea baizik. Hizlariak gerora ere modu berean mintzatu ziren. "Ez dugu inor beldurtu nahi", haien egitekoa datuak ekartzea, zientzia plazaratzea baino ez zela argi utzi nahi izan zuten ToxicoWatch fundazioko kide Kirsten Bouman eta Abel Arkenboutek. Azken bost urteotan, Zubietako erraustegiari buruz eginiko ikerlanaren emaitzak aurkeztu zituzten astelehenean Sutegiko auditorioan. Aldez aurretik, Hernanin eta Batzar Nagusietan ere agerraldi bana egin eta egunotan laginak biltzetik ere bazetozen.

Kutsadura askoz handiagoa

Laburbilduz, bost urteotan, hau da, erraustegia piztu aurretik, 2019an eta segidako urteetan, Zubieta gaineko planta piztu osteko lau urteetan bildutako datuen arabera, ondorio argira heldu dira ToxicoWatch-ekoak; orohar, kutsaduraren igoera nabarmena behatu dute aipatu fundazioko kideek erraustegiaren bueltako udalerrietan; Usurbilen, Zubietan, Lasarte-Orian, Hernanin, Urnietan edota Andoainen.

"KUTSADURAREN IGOERA NABARMENA BEHATU DUTE ERRAUSTEGIAREN BUELTAN"

"LAU URTEKO TARTEAN HIRUKOIZTU EGIN ZIREN 2019AN ERREGISTRATURIKO BALIOAK"

2023an oiloen arrautzak ikertu zituzten oilategi guztietan dioxinen hazkuntza behatu zuten, PCB-ak eta PFASak ere hazi zirela. 2021. urtetik dioxinen kontzentrazio altua hazten joan zela goroldioan. Joera bera sumatu dute baita aztertu dituzten pinu orratzetan. Metal astunen kopurua hazi egin zen baita ur eta sedimentuetan.

Hainbat gardenkien bidez, laginak hartutako eremuetako balioak erakutsi zituzten; zenbaki zehatzak. Esaterako, 2019-2023 urte artean eremu berdinetan jasotako laginen emaitzak alderatu zituzten. Aldea esanguratsua da. Lau urteko tartean, 2023an orohar hirukoiztu egin ziren 2019an erregistraturiko balioak. Aipatzekoa da, erraustegia piztu aurretik jaso nahi izan zituztela lehen laginak, une hori eta gerora, aipatu Zubieta gaineko planta martxan jarri osteko datuak alderatu ahal izateko. "0 laginketa" hark Europak arututako muga gainditzen zuen hainbat neurketa eremuetan. Aipatu moduan, are datu okerragoak erregistratu ziren iaz, hiru aldiz okertu zen bataz beste, orohar, dioxinen kopurua.

Toxikotasuna biderkatu da

Lagin hainbatetan gai kutsakorren balio oso altuak antzeman dituzte. Hala aurreratu dute, gogoan izan, Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak egunotan. Batetik, "landareetan igoera nabarmenak ikusten dira dioxinetan, PCBetan eta PFASetan. Adibidez, gorostien hostoetan ikusten da dioxinak eta PCBak bikoiztu egin direla. Goroldiotan ere dioxina eta PCBen igoerak oso handiak dira. Lurpeko uretan metal astunen aztarnak (beruna, zinka, kobrea...) biderkatu egin dira". Arrautzak ere aztertu dituzte, horietan "dioxina eta PCB maila altuak dauzkate eta urteotan horietan igoera oso nabarmenak ikusi dira, jan-

⟶ garriak izateko muga legalak gaindituz".

Ura, sedimentuak, landaredia, erraustegitik hurbil dauden oilategietako arrautzak, ama-esnea... aztertu dute urteotan. Bereziki esker ona agertu zieten, ikerketan parte hartu zuten amei. "Benetan estimatu genuen ahalegin hori", ToxicoWatch-koen esanetan.

Etengabeko neurketaren alde

Europan barrena azken hamarkadan egin dituzten hainbat ikerlanetatik behatu ahal izan dutenez, erraustegiak teknologia aurreratuenarekin eraikiko dituztela iragartzen denean, ezkutuan geratzen den alderdirik bada ToxicoWatch-ekoen esanetan. Esaterako, "arazoak izaten dituztenean" zer gertatzen den. "Emandako datuak ohiko funtzionamenduarenak izaten dira", haien esanetan. Baina Zubietako erraustegian eta beste hainbatetan gertatu ohi dira ezbeharrak, funtzionamendua eten beharra, berriz martxan jarri beharra... Une horietan, "gas isurketa izugarriak gertatzen dira", nabarmendu zuten ikerlariek. Gai toxiko hauek ikusezinak dira, ez dute usaintzen baina "iraunkorrak dira" eta metatzen doaz, "oso zailak dira desegiten" eta ohartarazi zutenez, "metatzen direnean eragiten dute arriskua gure osasunean". Horregatik zioten, "etengabeko azterketak egitea da bidea" helburu nagusi batekin; jakiteko hondakinen errausketak egoki funtzionatzen duen eta ea "erraustegiak zer ekarpen egiten duen toxikotasunean".

Horrekin batera, kontuan hartzekoa iruditzen zaie, "hondakinak zenbateraino ari diren aldatzen", baina batez ere, neurketa jarraituei garrantzia eman zieten. "Etengabeko neurketa hori egin beharra dago" eta modu horretan jakin, zer den erraustegiko tximiniatik irteten dena. Horretarako, bost urteotan abiaturiko ikerlan honekin segitzeak duen garrantzia nabarmendu zuten.

Toxico Watch-ek Sutegin plazaraturiko ikerlanaren ondorioak.

Hainbat herritarrek eta udalek diruz lagundutako ikerlan hau Zero Waste Europe (Zero Zabor Europa) sustaturiko zazpi ikerlanen sarean txertatu dute. Zubietako erraustegiko behaketa lanarekin batera daude, Madril, Paris, Belgika, Lituania, Txekia eta Herbehereetako plantei buruzkoak.

Lankidetzarako deia, "elkarrekin irtenbideak aurkitzeko"

Ordu eta erdiko saioa, aldibereko itzulpen zerbitzuaz jarraitu ahal izan zuten kultur-etxeko auditoriora joandakoek. Entzuleek egin zitzaketen galderen tartean, berriki Foru Aldundiaren eta GHK-ren eskariz BioGipuzkoak eginiko ikerlanaz zuten iritziaz galdetu zieten ToxicoWatch-eko kideei. Xehetasunak ez dituztela ezagutzen erantzun zuten, baina ToxicoWatchek lan egiteko modua ekarri zuten gogora. Batetik, azterketak bere baitan hartutako lur-eremua zehatzagoa izan zela ToxicoWatch-ekoena, zabalagoa BioGipuzkoakoena. Metodologia bikoitza baliatu dute; azterketa kimikoa eta baheketa baliatu dute behaketa lanotan. Horrez gain, ikerlan hauetan laginketak nahikoa adierazgarria izan behar duela defendatu zuten, ez edozelan eginiko datu bilketa. Halere, lankidetzan jarduteko prestasuna adierazi zuten. "Elkar hartuta lan egitea gustatuko litzaiguke, elkarrekin irtenbideak aurkitzeko", adierazi zuten ToxicoWatch-eko kideek. Izan ere, fundazio independente honen lan egiteko moduarekin bat datoz adierazpenok. Inguruneko gai kutsakor iraunkorren laginketa, azterketa eta zabalpena egiten dute eta zientzia lan hauen bidez zubiak eraiki eta elkarlan guneak sustatu nahi izaten dituzte herritar, gobernu eta industrien artean.

"ELKAR HARTUTA LAN EGITEA NAHI GENUKE, ELKARREKIN IRTENBIDEAK AURKITZEKO"

"EZINBESTEKOTZAT JO ZUTEN ERRAUSTEGIAN GERTATZEN DENA ETENGABE NEURTZEA"

Ildo horretan, Zubietako erraustegiaren kasuan ere, elkarlanerako guneen beharra aldarrikatu zuten, esaterako, Belgikako erraustegiaren bueltan bideratzen ari direnaren antzera. Han ere, "oso kezkatuak zeuden, zuek bezala", adierazi zuten Sutegin ToxicoWatch-eko ordezkariek. Lan talde bat eratua dute, erraustegiko kudeatzaileekin eta etengabeko neurketak egiten jarraitzeko asmoa dute.

Iturria aurkitu nahi

Bide horretan, lehentasunezko lan-ildoetakoa jorratzea nahiko luketena zein den adierazi zuten Sutegin. Aipatu moduan, bost urteotako ikerlanen emaitzak aurkeztu dituzte. Gai toxikoen presentzia hazi egin dela nabarmen diote emaitza horiek. Aurrera begira, ordea, urrats bat gehiago emateko nahia adierazi zuten. "Kutsadura horren iturria aurkitu nahi dugu", Sutegiko aurkezpen ekitaldiko hizlariek adierazi zutenez. Horretarako, aipatu moduan, ezinbestekotzat jo zuten erraustegian gertatzen dena etengabe neurtzea.

Hausnarketa udazkenean

Errausketaren Aurkako Mugimendutik Sutegiko ekitaldian iragarri zutenez, BioGipuzkoak eta ToxicoWatchek ezagutarazitako ikerlanen edukia adituekin aztertu ostean, datorren udazkenean horri guztiari buruzko gogoeta plazaratu asmo dute.

GuraSOSek 2022. urte amaieran Donostian eginiko mobilizazioa.

GuraSOSen helegitea izapidetzea onartua

GuraSOSek aurkeztutako babes-errekurtsoa izapidetzea onartu du Espainiako Konstituzio Auzitegiak, aipatu elkarteak berak jakinarazi duenez. Garrantzia konstituzional berezikoa dela dio GuraSOSek, "haren babesean aurkeztutako errekurtsoen %1 bakarrik onartzen da" eta.

Babes-errekurtso hau, "EAE-ko Auzitegi Nagusiaren epai baten aurka aurkeztutakoa" da. Epai haren arabera, "elkarte horrek “legitimazio aktiborik eza” du epaitegietan jarduteko, Zubietako errauskailuarekin zerikusia duten kasuetan". Aipatu moduan, GuraSOSek epai horren aurkako babes-helegitea aurkeztu du, "Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren bigarren sekzioak urte horretako martxoaren 29an emandako 134/2021 epaiaren aurka, ez baitzuen onartu erraustegiaren Ingurumen Baimen Integratuaren (IBI) aurka GuraSOS-ek aurkeztutako errekurtsoa". GuraSOSetik oroitarazi dutenez, "Euskal Auzitegiak berariaz saihestu zuen gaiaren mamian sartzea, eta, hala, errauskailuaren baimenaren legezkotasunari buruzko iritzia ematea saihestu zuen. Izan ere, errauskailua epaitu gabe geratu zen, eta GuraSOS taldeak errekurtsoa jartzeko “legitimazio aktiborik eza” argudiatu zuen".

Hamar eguneko epea

GuraSOSek Espainiako Auzitegi Gorenera jo zuen gero errekurtsoa berresteko. Tramitera onartu ez zuenez, Espainiako Konstituzio Auzitegira heldu da kasua. Orain, GuraSOSetik aditzera eman dutenez, "EAE-ko Justizia Auzitegi Nagusiak hamar eguneko epea du, KAren probidentziaren arabera, “821/2016 Prozedura Arruntari dagozkion jarduketen kopia bidal dezan” GuraSOSek errekurritutako epaiarena. Aldez aurretik, prozeduran parte hartu dutenei dei egin behar zaie: Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa (GHK). Era berean, hiru erakunde horiek beste hamar eguneko epea dute “babes-errekurtso honetan agertzeko, hala nahi badute”, probidentziaren arabera". Horrez gain, "Auzitegi Gorenak ere, probidentzian ageri den bezala, elkarteak aurkeztutako kasazio-errekurtsoa ez onartzeko autoa igorri beharko dio Konstituzio Auzitegiari". GuraSOSetik espero dute, "Konstituzio Auzitegiak bere probidentzian adierazitako transzendentzia esplizituaz haratago, epaia ematerakoan arreta handiz erreparatuko diela Europako araudiak eta epaiek, bereziki sentiberak baitira".

"EAE-KO AUZITEGI NAGUSIAK HAMAR EGUNEKO EPEA DU JARDUKETEN KOPIA BIDALTZEKO"

Erraustegiaren baimenaz

Aurrera begira, "epaiaren muin-auzia" GuraSOS-en ustez izango da, "EAE-ko Justizia Auzitegi Nagusia gaiaren mamian sartzera eta erraustegiaren baimena legez kontrakoa dela esatera behartuko duen ala ez, horrek errauskailuaren funtzionamenduan izan ditzakeen ondorioengatik". GuraSOSek oroitarazi duenez, "ez da gai hau KAra iristen den lehen aldia. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak, lehen ere, Ingurumenaren Euskal Legean ingurumenaren arloko ekintza publikoa onartzen zuen artikuluaren aurkako konstituziokontrakotasun arazoa planteatu zuen".

Lege aitzindaria

EAE-ko Auzitegi Nagusiko epaiak "alarma handia" piztu zuela gogorarazi du GuraSOSek, "gizartean, bai administrazio eta ingurumen zuzenbideko eremu espezializatuetan, bai ingurumen erakundeetan". Ondorioz, "horrek eraman gintuen Aldundia eta Eusko Jaurlaritza autogobernuari eraso egiten ari zirela salatzera. Azkenik, KAk adierazi bezala eman zuen iritzia, eta horrekin batera, 25 urtez modu baketsuan indarrean egon zen arau bat indargabetu zuen". Aitzindaritzat jotzen du lege hau GuraSOSek, "aurrerapausoa eman zuen ingurumen demokraziaren arloan". GuraSOSek plazaraturiko albiste hau osorik irakur dezakezue, blogagurasos.wordpress.com atarian.

Gaikako bilketa %86koa izan zen 2023an

Maiatzaren 17ko Birziklatzearen Nazioarteko Egunean Usurbilgo gaikako bilketari lotutako iazko datuak argitaratu zituen Usurbilgo Udalak.

Usurbilgo auzune berrienak ere badu auzo-konposta gunea. Ugartondok berea du jada, Usurbilgo Udalak jakinarazi duenez.

%86ko gaikako bilketa izan zuen udalerri honek iaz, aurreko urtean baino puntu bat gutxiago. Izan ere, %87koa izan zen 2022an, orain arte erregistraturiko ehuneko altuena. Gainerako eremuetako gaikako bilketa maila nabarmen gainditu du Usurbilgo datuak. Iaz, San Marko mankomunitateak %50eko gaikako bilketa izan zuen, Gipuzkoak %57koa.

Hiri hondakinen zati hainbaten kopurua murriztu da 2022tik 2023ra; papera eta kartoia (456 tonatik 410 tonara), beira (247 tonatik 205 tonara), etxeko olioa (5 tonatik 4 tonara). Aldiz, gehitu egin da ontzi arinen kopurua (270tik 285 tonara), zati pisutsuena den biohondakina (757tik 793 tonara) eta errefusa (391tik 417 tonara). Gainerakoan, "hondakinen sorrerari dagokionez, behera egin du biztanle bakoitzeko sortutako hondakin kopuruak, 500 kilo/biztanleko langatik behera jarraituz: 485 kilo sortu dira, biztanleko, 2023an, Usurbilen".

Iazko datuen errepasoari dagokionean, bi mugarri garrantzitsu nabarmendu ditu Udalak. Batetik, "2023. urtean Europa mailako Zero Zabor ziurtagiria ere mugarri garrantzitsua izan da: Europa mailako emaitzarik onena lortu du Usurbilek, 5 izarretatik 4 erdietsita". Horrez gain, "nabarmentzekoa da 2023an ekitaldi publikoetan hondakinen murrizketa sustatzeko udal zerbitzuek egindako ahalegina: baxera berrerabilgarriaren erabilera bultzatu da herriko festa eta jarduera ia guztietan".

Auzokopostatzen eta atez ateko datua

Usurbilgo auzune berrienak ere badu auzo-konposta egitasmoa. Ugartondok berea du jada, Usurbilgo Udalak jakinarazi duenez. "Udalak iaz egin zuen urbanizazio berrian materia organikoa auzo-konpost gune baten bidez kudeatzeko interesa izan zezaketen herritarrentzako deialdia. Urtebete beranduago, hamabost familiarekin abiatuko dute Ugartondoko auzo-konposta gune berria", iragarri dute Udaletik.

Udaleko Atez Ateko bulegotik, "gutxi batzuentzako" lekua dago oraindik, eta horiek bete arte izena emateko aukera izango da: udaletxeko bulegoan bertan eman daiteke izena, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara".

Joxe Ramon Sarasola Alzaga zendu da

Joxe Ramon Sarasola Alzaga herrikidea zendu zen maiatzaren 23an 81 urterekin. Albiste honi atxikitako argazkian duzue, hain zuzen, duela bost urte, bere anaia Felixi frontoian egin zitzaion herri omenaldian jasotako oroigarria eskuan duela.

Alkartasunaren omenaldia jaso eta astebetera

Bere heriotza, hain zuzen, Joxe Ramon bera omendu eta astebete pasatxora heldu zen. Izan ere, Alkartasuna Baserritarren Kooperatibak maiatzaren 15eko San Ixidro eguneko ospakizunetan eskertza ekitaldia egin zion berari eta baita Euxebio Txapartegiri ere "nekazaritza eta herri kirolak bultzatzeagatik" egindako ahaleginagatik. Bi alor hauetan gogotik aritu zen Joxe Ramon urte luzez. Halere, askorentzat ezaguna izango da, bere eguneroko ogibide eta lantoki izandako Bordatxo tabernagatik. Familia negozio honetan aritu zen urte luzez.

Azken urteotan urtero ikusi dugu baba beltz txiki kofradiak egindako bilkuretan. 2009an izendatu zuten kofradekide. Larunbatean egin zen bere aldeko hileta elizkizuna.

Maiatzaren 23an hil zen, 81 urterekin.

Orbeldikoen ikasturte amaiera

Orbeldik dantza batean agurtuko du ikasturtea. Kalejiran ibiliko dira eta ikasturtean zehar ikasitakoa ere erakutsiko dute Artzabalen.

Ekainak 7, ostirala

- 19:00 Kiroldegitik irteera.
- 19:30 Dantza emanaldia Artzabalen.
- Antolatzailea: Orbeldi Dantza taldea.

Ekainaren 16an egingo da IV. Uxue Trail elkartasun proba.

Lau modu IV. Uxue Trail ekimenean parte hartzeko

Denok parte hartzeko moduko lasterketa izatea nahi dute; ohi bezala, sentsibilizazioa eta elkartasuna uztartuko dituena. Datorren ekainaren 16an izango da 4. Uxue Trail ekimena.

Ekimen honen xedea, gogoan izan, "Phelan-McDermid Sindromea, edo 22q13 kromosomaren gabetzea, gure herriko Uxue txikiak duen gaixotasun arraroa" ezagutaraztea da eta haren ikerketarako laguntza biltzea da. Horregatik, aurtengoan ere, "bai korrika bai dortsal solidarioaren bidez, ekitaldi honetan parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu", egin digute gonbita antolatzaileek.

Dortsal solidarioa

Elkartasun ekimen honetan ekarpena egiteko lau bide edo modu eskainiko ditu antolakuntzak. Batetik, distantzia ezberdinetako mendiko bi lasterketa antolatu dituzte, hirugarrenik, Uxue Paseoa deritzana eta, azkenik, dortsal solidarioa eskuratzeko aukera dago.

Erritmo ezberdinetan

Lasterketei dagokienean, aipatu moduan, Andatzako buelta egitea ahalbidetuko duten bi izango dituzte korrikalariek aukeran; batetik, 20 kilometroko Trail Luzea eta 12 kilometroko Trail Motza. Egunotan ohartarazi dutenez, "baso-arrazoiengatik, trail luzeko eta motzeko distantziak eta ibilbidea eguneratu" dituzte. Izango da irteera alternatiborik ere. Izan ere, Uxue Paseoa ere iragarri dute, aurreko edizioetan bezala; 5,5 kilometroko ibilaldia. "Paseo bat da. Beraz, ez duzu eliteko kirolaria izan behar", ohartarazi dute antolatzaileek, sare sozialen bidez. Argitu dutenez, "distantzia motzeko eta altuera gutxiko paseoa da. Beraz, berdin du zein adin edo trebetasun fisiko daukazun, karrera hau zuretzako da!".

Lasterka edo mantsoago aritu edo ibili nahi duenak aipaturiko hiru aukera horiek izango ditu eskuragarri. Baina bada, laugarren alternatiba bat ere; dortsal solidarioa eskuratzea, diru ekarpena egitearen truke. "Uxue bezalako umeei lagundu nahi badiezu, parte hartu lasterketan edo erosi zure dortsal solidarioa!", deitu dute elkartasun lasterketa honen antolatzaileek.

"BAKARRIK, LAGUNEKIN, EDO FAMILIAREKIN PARTE HAR DEZAKEZU UXUE TRAIL EKIMENEAN"

IV. Uxue Trail

- Eguna: ekainak 16, igandea.
- Ordua: 9:00.
- Tokia: Usurbilgo frontoia.
- Lasterketa motak:

-Uxue Trail Luzea (20 kilometro+900 m): 25 euro.
-Uxue Trail Motza (12 kilometro+600): 15 euro.
-Uxue Paseoa (5,5 kilometro): 12 euro.
-Dortsal solidarioa (donazioa).

Oharra: oparien zozketa lasterketa amaieran, parte hartzaileen artean.

- Izen-ematea eta informazio gehiago hemen: kronoak.com
- Izen-emateko epea: ekainaren 14, 22:00ak arte (egunean bertan, izen-ematea 5 euro garestiago).

Trail Motza ezagutzeko aukera

Lasterketa motzeko ibilbidea berria izango da. Hobeto ezagutzeko asmoz, hitzordu bat antolatu dute larunbat honetarako. "Erritmo lasaian joango gara". Helburua da lasterketan izena eman ez dutenei ibilbidea probatzeko aukera eskaintzea. "Eta batez ere neskei", Irati Larrañagak nabarmendu digunez. Larunbat honetan, ekainak 1, goizeko 9:30ean elkartuko dira Usurbilgo frontoian.

Ikastola Eguna, ate joka

2023-24 ikasturtea agurtzeko ordua heltzear da. Udarregik datorren asterako iragarri du Ikastola Eguna:

Ekainak 7, ostirala
17:00 Txokolate jana.
18:00 Dj Mendi Askatasuna plazan.

Ekainak 8, larunbata
Udarregi Ikastolaren Eguna
- Goizean zehar, LH eta DBHkoen jolasak.
- 14:00 Ikastolako bazkaria Frontoian.
- Txartelak maiatzaren 30era arte salgai, 8:00-13:00 artean ikastolako idazkaritzan, edota maiatzaren 29an eta 30ean 16:30-17:00 artean Agerialdeko jolastokian.
- Menua (Hurbilago elkartearen eskutik).

-Ikasleentzat: Makarroiak tomatearekin, oilaskoa, izozkia, ogia eta ura: 10 euro.
-Helduentzat: Entsalada, oilaskoa, tarta, ogia, sagardoa/ardoa/ura, kafea eta pattarra: 16 euro.

- 17:00 DBHko ikasleen emanaldia.

Ekainak 14-16
- "Usurbil Eskola Agenda 2030" erakusketa Sutegin.

Ekainak 14, ostirala
- 9:30 "Agenda 30" Ikasleen aurkezpena osoko bilkura gelan.

Antolatzaileak: Udarregi ikastola eta Hitz Aho guraso elkartea.

Ekainaren 8an ospatuko da Ikastolaren Eguna.

Delirium Tremens taldea zuzenean arituko da frontoian. LORENTXA SARAGUETA.

Aitzaga, 30. urtemuga festaren atarian

Ospakizunak urte hasieran hasi zituzten baina larunbatekoa izango da Aitzaga kultur elkartearen 30. urtemugako jaialdi handia. Egun osorako hainbat ekimen iragarri dituzte.

Ekainaren 1era arte

"Aitzaga Kultur Elkartea 30 urtez hegaldian" erakusketa Sutegin.

Ordutegia:

• Asteartetik larunbatera: 18:00-21:00.

• Larunbatean: 11:00-14:00.

• Zehaztasunak: "Aitzagaren urteurrena ospatzen ari gara urtea hasi zenetik. Ekimen ugari burutu baditugu ere, azken 30 urte hauetan egindakoa erakusketa batean islatzea pentsatu dugu. Horretarako bi astez Sutegiko erakusketa gela, irekieratik gaur egun arte bizitakoaren erakusleiho bihurtu nahiko genuke. Bertan egin diren ekimen, dinamika, bazkari, kirol txapelketa, ekitaldi politiko... ikusteko aukera izango dugu. Urte luzez bizi izandakoa aurkituko duzu erakusketa honetan".

Ekainak 1, larunbata

Aitzaga K.E.-ren 30. urtemugako jaialdia

• 13:00 Ekitaldia.

• 13:30-14:00 Fanfarrikant Brass Band.

• 14:00 Herri-bazkaria Askatasuna plazan.

• 18:00 Fanfarrikant Brass Band.

• 19:30 Gunearen irekiera Dj Jotatxorekin.

• 20:00-23:00 Bokatak afaltzeko aukera izango da.

• 22:00 Kontzertuak: Olaia Inziarte, Delirium Tremens, Zea Mays, Dj Jotatxo.

• Sarrerak: usurbilkultura.eus plataforman eta Aitzaga tabernan salgai. Prezioa: herri-bazkarikoak eta kontzertu gauekoak 15 eurotan (egunean bertan 18 eurotan) eta otordurako zein kontzertu gauerako txartelak 30 eurotan.

Ekainak 15, larunbata

• 8:00 Irulegira irteera Bordatxo taberna paretik.

• Zehaztasunak: "Bertan, Irulegiko aztarnategiaren bisita gidatu bat izango da. Goizean abiatu eta eguerdi bueltarako izango da itzulera".

• Izen-ematea: aurrez Aitzagan.

• Jende kopuruaren arabera, autobusa antolatuko da.

• 21:00 Folkcore V. Asamblea+Electropapo ta ondoren Bigiliya Aitzaga aurrean Aitzaga tabernak antolatuta.

Antolatzailea: Aitzaga kultur elkartea.

Bertso-afaria Peña Pagolan

Ekainaren 15eko saioan Aitor Mendiluze eta Jexux Irazu arituko dira kantari.

Kalezarko elkartetik jakinarazi dutenez, bertso-afaria antolatu dute ekainaren 15ean, arratsaldeko 20:30ean. Jexux Irazuk eta Aitor Mendiluzek parte hartuko dute hitzordu honetan. Sarrerak erosteko maiatzaren 31ra arteko tartea izango da, astelehenetik ostegunera, 19:00-20:00 artean elkartean bertan edo 667 232 300 telefono zenbakira deituta. Bazkideek izango dute lehentasuna. Afariko menua honako hauxe izango da: zizka-mizkak, entsalada, oilaskoa saltsan, postrea, kafea eta kopa, edaria barne dela.

Txikitako jolasak Santuenean

Santuenea KE-k ekainaren 9rako iragarri du jolas-saioa. BAZKARDOKO TXOKOA

Jolasean aritzeko aukera eskainiko du Santuenea Kultur Elkarteak ekainaren 9an, arratsaldeko 16:30ean hasita.

Txingoa, xiba, goma...

"Gure txikitako jolasetan parte hartzeko aukera paregabea izango dugu familia giroan: txingoa, txapak, xiba, goma, sokasaltoa etab.

Karaokea

Eta ondoren, Gorka Mendirekin karaoke saioa egingo dugu euskal abesti gustagarrienekin", iragarri dute antolatzaileek.

Iñaki Aizpurua, Jon Howick, Ander Moron eta Haritz Eizagirre, euskaratutako materiala eskuan dutela.

"Txertatutako berrikuntzekin, euskarazko materiala gaztelerazkoa baino osatuagoa da"

Berrikuntza eta hobekuntza ugari egin ditu azken hilabeteetan Gidabaimenak Euskaraz ekimenak. Webgunea berritzeaz gain, materiala osatu eta eskuliburuak argitaratu dituzte, eta dagoeneko jasotzen ari dira egindako lanaren emaitzak.

Aurrerapauso nabarmenak eman ditu azken hilabeteetan Gidabaimenak Euskaraz ekimenak. Otsailean hasi ziren eskuliburu berrituak banatzen, eta egindako lana Euskal Herriko autoeskola askotara helarazi dute. Material berriak dagoeneko eman ditu fruituak, eta prozesu horretako katebegi guztiak elkartu dira ondorengo elkarrizketan: Iñaki Aizpurua, Gidabaimenak Euskaraz ekimeneko arduraduna; Jon Howick, atal teorikoa euskaraz atera berri duen gaztea; Haritz Eizagirre, Usurbilgo Solozabal autoeskolako irakaslea; eta Ander Moron, Usurbilgo euskara teknikaria.

Aurrerapauso handiak eman ditu azken hilabeteetan Gidabaimenak Euskaraz ekimenak. Zein puntutan dago orain?

Iñaki Aizpurua: Duela zortzi hilabete sinatu genuen hitzarmen berria, eta egindako lanaren zabalkunde fasean gaude orain. Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako autoeskola guztietatik ari gara pasatzen, eta bertako langileei erakusten diegu momentu honetan eskuragarri daukagun materiala. Webgunea ere berritu dugu, eta autoeskolei eskaintzen diegu aukera bertan jarri ditugun testak eta bestelako materiala erabiltzeko.

«GUK BETI ESATEN DUGU PROIEKTU HAU BIZIRIK DAGOELA. EGUNERO GAUDE BERRITASUNEI ADI"

IÑAKI AIZPURUA

Autoeskola guztietan dago atal teorikoa euskaraz egiteko aukera?

I.A.: Gidabaimenak Euskaraz webgunean ikusgai dago euskarazko eskaintza duten autoeskolan mapa, 120 inguru dira. Haiengana joaten garenean badaude itsu-itsuan onartzen dutenak, baina beste batzuk ez dira lehenengoan animatzen. Guretzat garrantzitsua da gidabaimena euskaraz atera nahi duten ikasleek jakitea euren herriko edo inguruko zein autoeskoletan daukaten aukera.

"GIDABAIMENA EUSKARAZ ATERATZEA LOGIKOENA IRUDITU ZITZAIDAN"

JON HOWICK

Jon, zu zara material berriarekin gidabaimena euskaraz atera duen lehenengo pertsona. Zergatik hautatu zenuen euskaraz egitea?

Jon Howick: Aukerarik logikoena iruditzen zitzaidan. Herriko jendearekin, lagunekin eta klasekideekin betidanik hitz egin dut euskaraz. Hortaz, gidabaimena ere euskaraz ateratzea zen naturalena niretzat.

Zer moduzkoa izan da esperientzia?

J.H.: Hizkuntzari dagokionez ez dut arazorik izan. Tarteka bazeuden ezagutzen edo ulertzen ez nituen hitzak, baina irakasleari galdetuta edo pixka bat irakurrita erraz argitu ditut zalantza guztiak.

Usurbilen sei ikaslek atera dute teorikoa euskaraz material berriarekin. Asko aldatzen da zure lan egiteko modua, Haritz?

Haritz Eizagirre: Ez, lana ez da asko aldatzen. Hitz bat lehenengo aldiz entzutean baliteke harridura pixka bat sortzea, baina hori euskaraz zein gazteleraz gertatzen da. Bertan ikusi duguna da gazte euskaldunek ez dakitela gidabaimena euskaraz ateratzeko aukera dagoela, eta hori ezagutaraztea tokatzen zaigu guri. Gainera, plataforma berrian informazio guztia eguneratuta dago, materiala ondo osatu dute, eta iruditzen zait ez dagoela motiborik teorikoa gazteleraz egiteko. Plataforma zaharrarekin gertatu izan zaigu ikasle bat euskaraz hasi eta gaztelerara aldatzea, orain jada ez da gertatzen.

Aldakorra da legeen mundua. Webgunea eguneratuta mantentzeak lan handia eskatzen du, ezta?

I.A.: Bai. Guk beti esaten dugu proiektu hau bizirik dagoela. Egunero gaude berritasunei adi; taldean adituak eta autoeskoletako irakasleak dauzkagu, eta galderak zein infor-

mazioa aldiro berrikusten dugu. Oso garrantzitsua da autoeskolekin dugun harremana zuzena izatea, bertan lanean dabiltzanak ohartzen direlako zeintzuk diren ikasleen zailtasunak, eta iritzi horien arabera egiten ditugu hobekuntzak.

H.E.: Hori da. Materialari buruzko edozein arazo helarazten diegu. Argazki bat kargatzen ez bada edo itzulpen bat ez bada egokiena, esan egiten diegu. Oso harreman zuzena daukagu.

I.A.: Gure lana ez da liburuak autoeskola batean utzi eta hurrengora joatea, bakoitzaren ekarpena kontuan hartzen dugu. Azterketei buruz galdetzeko ere deitzeko ohitura daukat, datuak eta emaitzak zeintzuk izaten ari diren jakiteko.

Ikasleek euskararen aldeko hautua egiteko giltzarrietako bat da autoeskolako irakaslea, ezta?

H.E.: Bai, eta aukera hori badagoela ezagutarazten saiatzen gara. Ikasleak galduta iritsi ohi dira autoeskolara, eta gure ardura da adieraztea baduela gidabaimena euskaraz ateratzeko aukera, udalerri euskaldunetan batez ere. Nik gazteleraz atera nuen karneta, euskaraz egingo nukeen, baina ez nekien aukera bazegoenik ere. Horregatik da garrantzitsua hori azaltzea, jendeak jakin dezan euskarazko material oso egokia daukagula.

I.A.: Gertatzen zaiguna da herri oso euskaldunetako autoeskola batzuetan harrera egiten duen pertsonak ez dakiela euskaraz. Orduan, haiek esaten digute ez zaiela gure proiektua interesatzen. Hala ere, irakasleak euskaraz ez jakiteak ez du esan nahi herriko ikasleek ez dutenik aukera hori izan behar.

Plataforma berriarekin atal teorikoa oso indartuta geratu da, baina praktikoan lan asko dago egiteko.

I.A.: Aztertzaileetan dago gabezia. Autoeskola askotan irakasleak ondo hitz egiten du euskaraz, eta normalean hala ematen dituzte klaseak. Hala ere, azterketaren egunean agindu guztiak gazteleraz jasoko dituztenez, argibide horiek gazteleraz esaten dituzte. Bide horretan urratsak ematea falta da, irakasleen zein aztertzaileen aldetik.

AM, A1, A2 eta B gidabaimenak ateratzeko materiala dago eskuragarri.

Solozabalen nola egiten duzue?

H.E.: Iñakik aipatu duen moduan; klasean zehar euskaraz egiten dugu, baina azterketarako prestatzen ari garenean, edo azterketaren simulazioa egiten dugunean, gaztelerara pasatzen gara. Azterketa ahalik eta ondoen irudikatzea da asmoa, eta hiztegia oso oinarrizkoa izan arren, horixe lantzen dugu.

J.H.: Hasieratik esan ziguten azterketa praktikoa gazteleraz egin behar genuela, eta horregatik jasoko genituela argibide zehatzak gazteleraz. Nik hasieran ulertzeko zailtasun pixka bat izan nuen, baina segituan ohitu nintzen egoera horretara.

"JENDEAK JAKIN DEZALA EUSKARAZKO MATERIAL OSO EGOKIA DAUKAGULA"

HARITZ EIZAGIRRE

Kotxeko karnetaz hitz egin dugu orain arte, baina beste gidabaimen batzuk ere atera daitezke euskaraz, ezta?

I.A.: Bai, bai. Zikomotorraren AM baimena, motorren A1 eta A2 baimenak, eta autoaren B baimena ateratzeko materiala dago eskuragarri. Gainera, une honetan atoiaren baimena ateratzeko materialaren itzulpena amaitzen ari gara. Hori egin ondoren etorriko dira kamioiaren C1 eta C baimenak, eta autobusaren D1 eta D baimenak. Azkenik, puntukako gidabaimena berreskuratzeko kurtsoa ere euskaratuko dugu. Helburua da abendurako material guztia prest edukitzea.

Prozesu honetan zein izan da Buruntzaldeako udalen rola?

Ander Moron: Buruntzaldeko sei udalak aspalditik aritu dira gidabaimena euskaraz ateratzeko sustatzaile lanetan. Autoeskolekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Trafiko Zuzendaritzarekin elkartu izan gara, eta hizkuntzaren gaia aintzat hartzeko eskatu izan dugu. 400 euroko saria ere sortu genuen gidabaimena euskaraz ateratzeko pizgarri modura. Gazte askok hori ere kontuan hartuko zuten hautaketa egiteko garaian. Txikitasunetik eragiten saiatu gara Buruntzaldetik; UEMAn dauden hiru udalerri dauzkagu, eta anomalia bat da euskaraz bizi, euskaraz ikasi eta esparru honetan gazteleraz jardun behar izatea.

Bestalde, atal praktikoari dagokionez, aipatu dugu aztertzaileekin dagoen arazoa, Espainiako Trafiko Zuzendaritzak duelako eskumena. Hala ere, aztertzaileak espainiarrak izanagatik, bertako herritarrek badituzte eskubideak, horregatik egoera salagarria dela iruditzen zait. Herritar euskaldun batek duen eskubidea ez du bermatzen berez bermatu beharko lukeen erakunde batek.

Orain emandako pausoa sekulakoa izan da, eta nabarmentzeko modukoa da euskarazko materiala gaztelerazkoa baino egokiagoa dela. Falta dena da prozesu osoa euskaraz egin ahal izatea. Gaur arte ahoz ahokoak eragin handia izan du, txarrerako batzuetan, eta orain da momentua beldur horiek uxatzeko. Gazteen artean zabaldu behar da euskaraz egin duten horiek gustura aritu direla.

"NABARMENTZEKOA DA EUSKARAZKO MATERIALA GAZTELANIAZKOA BAINO HOBEA DELA"

ANDER MORON

Hau guztia esanda, jendeari gomendatuko zeniokete gidabaimena euskaraz ateratzea?

J.H.: Bai, zalantzarik gabe. Prozesua oso naturala da, kalean euskaraz hitz egiten dugun bezalaxe egiten dugu autoeskolan. Ez da zailagoa eta ez dut inolako arazorik izan.

"DBH2ko ikasleok gonbidatu nahi zaituztegu zaborra lurrera ez botatzera"

Udarregiko DBH2ko ikasleak, proiektu komunitario baten bitartez, "Usurbilgo zaborra aztertzen egon gara".

Atxegalden, skate parkean eta Kalezarren batutako hondakinak aztertu dituzte.

"Udarregiko DBHko ikasleei galdetegi bat bidali diegu zaborraren kudeaketari buruz zer pentsatzen eta egiten duten jakiteko. Galdetegi horrekin grafika batzuk egin ditugu eta gero, ondorio batzuk atera ditugu.

Horrez gain, zaborraren egoera nolakoa den jakiteko, kalera atera gara, hiru taldetan, Atxegalden, skate parkean eta Kalezarren. Hiru toki horietan zaborra bildu dugu eta zabor asko atera da. Toki batzuetan zabor gehiago atera da besteetan baino, baina denetan dago zaborra. Kartelak jarri ditugu toki hauetatik, jendeak kontuan hartzeko, zaborra zaborrontzira doala.

Laugarren talde bat, sentsibilizazio lanetan geratu da ikastolan.

Udarregi ikastolan, kaxa batzuk jarri ditugu zaborra jasotzeko, eta oso beteta atera dira, lurrean aurkitutako zaborrez. Horrekin ondorioztatu dugu zabor asko dagoela eta asko lurrean dagoela, galdetegian batzuk lurrera botatzen dutela, esan dutela kontuan hartuz.

Bideo bat ere egin dugu gure ikastolako proiektuaren aurkezpenarekin batera erakutsiko dena. Bertan, gure guneetako zaborra nola jasotzen ari garen erakusten da. Naturatik zaborra, nola ateratzen dugun ikusteko eta Udarregi ikastolako ikasleak, zaborrak bere lekua duela kontuan hartzeko.

DBH2-ko ikasleok gonbidatu nahi dizuegu zaborra lurrera ez botatzera eta zaborrontzira botatzera".

DBH2ko ikasleak

"Toki batzuetan zabor gehiago atera da besteetan baino".

"Ikasleei galdetegi bat bidali diegu zaborrarekin zer egiten duten jakiteko".

"Zaborraren egoera nolakoa den jakiteko, kalera atera gara".

Egindako ikerketan, "zabor asko lurrean dagoela ondorioztatu dugu".

Idoia Torregarai 'Mikroipuinak' aurkezten, Sutegi udal liburutegian.

Egunerokoa, mikroipuin bilakatua

140 karaktereko Twitterreko txioak ipuin labur bilakatu eta haren bilduma argitaratu du Idoia Torregaraik Zaldieroarekin lankidetzan. Etxetik datorkion umorea baliatuta, eguneroko bizimoduari lotutako "mikrogaiez" dihardu, berriki Sutegin aurkezturiko 150 sortze lan motzen sorta honetan.

Erroizpeko iturburua bisitatzeko aukera izan zen aurreko astebukaeran.

Usurbilgo ur sistema ezagutzen

Larunbat goizean eta ostiral arratsaldean herritarrek aukera izan zuten Usurbilgo ur sistema ezagutu eta instalazioetan Udalak egindako inbertsioa ikusteko. Andatzako uraren hornidurak herriko etxeen %62ra hartzen du. Datozen hilabete eta urteetarako ere zabalkunderako planak prest ditu udalak.

LH6ko ikasleak, oztopoak pasatu eta zirkuitua bete nahian.

LH5 eta LH6koen multikirol topaketak

Zirimarak antolatuta, multikirol topaketak egin zituzten larunbat goizean LH5 eta LH6ko lagunek. OCR edo oztopo lasterketez gozatzeko aukera izan zuten bertaratu ziren 50 bat gaztek. Oztopo lasterketak herrian egiten diren lehen aldia izan zen horren modan jartzen ari den honetan.

Pasa den igandeko saioa Gipuzkoako Bertsolari Txapelketarako baliogarri izan zen.

Maider Arregi nagusitu zen Sutegin

Gipuzkoa Bertsotan faseko beste bi saio jokatu ziren aurreko astebukaeran. Alegian bat, Usurbilen bestea. Sutegikoan Maider Arregi Markuleta gailendu zen, 345 punturekin. Aitor Tatiegi Loidi, June Aiestaran Iparragirre, Odei Lopez Larrauri, Oier Aizpurua Olaizola eta Uxue Alkorta Iturbe izan zituen bidelagun.

ARANKA BERRIKUNTZAK
·Fatxaden estaldurak ·Estalkien berriztatzeak
·Barruko berrikuntzak ·Gremioen koordinaketa
·Igeltseritza orokorra
606 37 21 05 USURBIL

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22
943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

UEU-k, Jakinek eta Usurbilgo Udalak beste lau urterako berritu dute lankidetza hitzarmena.

Memoriaz, datorren Jakin Jardunaldia

"Gatazkaren memoria, memoriaren gatazka" hala izena du UEU-ren 52. udako ikastaroen baitan, aurtengoan ekainaren 20an eta 21ean Usurbilen antolatu duten Jakin Jardunaldiak. Matrikulazio epea zabalik duzue ueu.eus atarian.

"Izenburua laburra izanda, benetan sakona da", adierazi zuen aurtengo Usurbilgo Jakin Jardunaldia aurkezteko iragan astean antolatzaileek (UEU-k, Jakinek eta Usurbilgo Udalak) Donostian eginiko agerraldian. UEU-ren zuzendari Aitor Bengoetxearen esanetan, "nire ustez berebiziko garrantzia du gazteen edota umeen ikuspegiak; hau da, bere adinagatik gatazka bizi izan ez duten gazteek eta batez ere umeek jasotzen duten gatazkaren kontaketak. Izan ere, neurri handi batean horrek eraikiko du beraien kontzientzia". Ildo beretik mintzatu zen baita Jakineko zuzendari Lorea Agirre. "Gai potoloa da, kolektiboki badago zer landua. Gatazkak amaitze bidean izan edo bukatutakoan, beti behar izaten da gogoetatu, pentsatu, hausnartu, erreparatu, justizia egin, ezkutuan geraturiko ahots guztiak atera. Hori modu erakundetu, antolatu batean egin liteke, edo hori ezean, beste modu batzuetatik. Hau izan daiteke horren adibidea, gai horretan aletxo bat jartzeko saiakera".

Usurbil 1936 elkarteko kideen parte hartzea

Hiru eremuetatik heldu asmo diote gaiari: memoria zer den, memoria nork kontatzen duen, eta, azkenik, memoria nola transmititu, zabaldu. Egitarau osoa ueu.eus atarian kontsulta dezakezue. Web orrialde horretan bideratu beharko da matrikulazioa ere.

Jakin Jardunaldiko hitzorduei dagokienean, badira aurtengora begira nabarmendu beharreko bi berezitasun. Aurreko zenbait edizioetan gertatu moduan, Usurbilen egingo den jardunaldian Agirrek gogorarazi moduan, "Usurbil bada herri bizia kultura aldetik. Edozein gai planteatzen dugula beti dago herrian erreferentziazkoa izan daitekeen ekimen bat eta hori interesagarria da gaiak berak lur hartzen duelako, ematen ari garen leku horretan". Aurtengoan, memoriaz ariko direnez, udalerri honetako oroimen historikoa berreskuratzeko lanean dihardu Usurbil 1936 elkarteko kideak gonbidatuko dituzte ekainaren 20an, Andatzako lubakietan eginiko indusketa lanen berri emateko. Segidan, ibilaldi gidatua programatu dute herrian barrena.

"USURBIL 1936 ELKARTEKO KIDEAK GONBIDATUKO DITUZTE EKAINAREN 20AN"

Beste berrikuntza bat; izan ere, aurtengoan ekitaldi gehienak Artzabalen egingo diren arren jardunaldian izena eman dutenentzat, bada hitzordu bat Sutegin egingo dena, auditorioko eserlekuak bete arte herriari irekiko dena; "Negu hurbilak" izeneko filma proiektatuko dute hilaren 21ean.

Beste lau urtez

Memoriari buruzko Jakin Jardunaldiaren aurkezpena baliatu nahi izan zuten sustatzaileek azken zortzi edizio hauetan izan duten lankidetza hitzarmen bidez berritzeko. Hirugarrena sinatu zuten, beste lau urterako. Pozarren agertu ziren sinatzaileak. "Gu oso eroso sentitzen gara gaurkoa bezalako elkarlanetan", adierazi zuen UEU-ko zuzendariak. "Elkarlan hau oso emankorra, aberatsa eta gustagarria da", nabarmendu zuen Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak. Udalak tokia, herria eskainiko dio Jakin Jardunaldiari, 10.000 euro bideratzeaz gain. "Guretzako aukera paregabea da herri unibertsitate herritar hori bi egunez gure herrira ekartzea, ezagutzaren, gogoetaren, jakinminaren, pentsamenduaren, kulturaren artean egiten den uztarketa hori gure herrian gertatzea, iruditzen zaidalako, herrigintzan ari garenontzat behar beharrezkoak ditugula elkarrekin pentsatzen jartzen gaituzten gune horiek".

Gaiari dagokionean, Usurbilen oroimen historikoaren alorrean egiten ari den lanketari egingo zaion tartea nabarmendu nahi izan zuen; beharrezko egitasmoa, "ahaztua geratu ez dadin, transmisioan sakontzeko eta memoria antifaxista bat lantzeko".

EAJ-k San Inazioko biribilgunea hobetzeko proposamena luzatu du

"Espaloirik eta zebra-biderik gabeko errepidea izanik, haur askok autobusa hartzeko gurutzatzen dutenean", arrisku-egoera ugaritu egiten dela dio.

Irudi-muntaia honetan ikusten den moduan, biribilguneko espaloiak zabaldu eta zebrabide berri bat jartzea proposatzen dute jeltzaleek. IRUDIA: EAJ-PNV

San Inazio biribilgunean auto ugari dabiltza. Arrazoi hori medio, oinezkoen segurtasuna hobetzeko premia azpimarratu du Usurbilgo EAJ-PNV alderdiak. Nola hobetu? Biribilguneko espaloiak zabalduz eta zebrabide berri bat jarriz.

12.000 euroko inbertsioa

Alderdi jeltzalearen esanetan, hobekuntza horiek egiteko 12.000 euroko inbertsioa egin beharko litzateke. "Horri esker, oinezkoentzako ibilbide segurua gauzatu ahal izango da, EAJ-PNVk udalerriko bide-segurtasunarekin eta irisgarritasun unibertsalarekin duen konpromisoa azpimarratuz".

Udal gobernuaren ezezkoa

Proposamena ez da berria. 2024ko udal aurrekontuak zuzenketa garaian zeudenean, EAJ-PNVk orduantxe luzatu zuen lan honen beharra, "baina EH Bilduren udal gobernuak ez zuen onartu", prentsa-ohar bidez gogora ekarri duenez.

Segurtasuna eta irisgarritasuna

Xabier Otxoa Usurbilgo EAJ-PNVren bozeramailearen esanetan, "proposamen hau Usurbil seguruago eta guztiontzako eskuragarriago bat lortzeko aurrerapausoa da. Sentitzen dugu 2024ko aurrekontuetan sartu ez izana, baina lanean jarraitzen dugu, eta gure bizilagunen bizi-kalitatea hobetuko duten proiektuak defendatzen. Segurtasuna eta irisgarritasuna gure udalerrian bermatu beharreko oinarrizko eskubideak dira".

Usurbilgo Elkargunea izango dena izendatzeko deialdi irekia

Usurbilgo herriak ekipamendu berri bat izango du laster, eta gauzak ondo bidean, Udarregi ikastola pareko belardian eraikiko da. Herriko nerabe, gazte eta kulturgileen topagunea izango da. Guneari izen bat jarri nahi diote eta deialdi bat abiarazi dute.

Usurbilgo Elkargunea definitzeko xedez, parte hartze prozesu batean dira eragile ugari: Aztarrika gazte asanblada, Usurbilgo Kulturgunea, Ziortza gazte elkartea eta Gaztelekua. "Orain arte, proiektuaren helburua aintzat hartuta, Elkargunea gisa izendatu izan dute etorkizuneko ekipamendu publiko berria, baina izendapen berri bat ematea erabaki dute", udal ituriek aditzera eman dutenez. Hala, herritarrak animatu nahi dituzte izen-proposamenak egitera ahalik eta herritar gehienen ekarpenekin, horrek prozesua bera aberastuko duelakoan.

Epea: ekainak 3

Proposamenak egiteko epea maiatzaren 27an ireki zen eta ekainaren 3ra arte egongo da zabalik, Internet bidez edo botoa emateko kutxen bidez.

Proposamenak luzatzeko bi aukera

Proposamenak egiteko bi modu egongo dira: Internet bidez, galdetegi erraz bat beteta. Helbide honetan topatuko duzue: Internet bidez galdetegia beteta: https://form.jotform.com/240852573451356

Herrian zehar hainbat kutxa ipini dituzte. Bertan bota daitezke paper batean idatzitako izenak. Kutxak toki hauetan topatuko dituzue: Aitzagan, Oiardo kiroldegian, Potxoenean eta Sutegin.

2. Etumeta literatura lehiaketaren sari banaketa

Aurreko hilabeteetan finkaturiko epealdiaren baitan aurkeztutako idazlanak saritzeko ordua heldu da. Datorren ekainaren 5ean banatuko dituzte 2. Etumeta literatura lehiaketako sariak, iaz bezala, Etumeta AEK euskaltegiak arratsaldeko 18:00etan Txiribogan antolaturiko ekitaldian. "Bertan 2. edizioaren irabazlea zein den jakingo da. Bi aipamen ere izango dira, eta horien izenak ere bertan ezagutuko dira. Parte hartzaile guztiak, noski, gonbidatuta daude bertara, baita gainerako herritarrak ere".

Aurrematrikulazioa

Matrikulazioa irailean bideratuko duten arren, 2024-25 ikasturterako aurrematrikulazio epea zabalik du jada Etumeta AEK euskaltegiak. Xehetasun gehiagorako:

- Bulegoan: Nagusia, 43
- 607 609 379
- usurbil@aek.eus
- aek.eus

ARRANDEGIA PELLO
9:00-13:30
ASTEARTETIK LARUNBATERA
PUNTAPAX 7, 650 31 31 91

USURBIL DÖNER KEBAB
843 675 265
603 609 183
USURBIL DÖNER KEBAB USURBIL_DK
Borda Berri Kalea, 5

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA · ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
urdaintzi@euskalnet.net
IT-ak egiten dira
649 43 54 75
943 36 72 64
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

"Lehenengo eta behin, negozio bat ireki baino lehen merkatuaren beharrak aztertzea ezinbestekoa da".

“Usurbil Zabalik dirulaguntza aprobetxatzea erabaki nuen bizartegia irekitzeko”

SARA PERALES STILEPLATONICO BIZARTEGIKO NAGUSIA

Sara Perales ile-apaintzaileak bizartegi berria ireki du Errekatxiki kalean 5. zenbakian, Tomasen farmaziaren ondoko lokalean, eta bertan, gizonezkoei mozten die ilea goizetik arratsaldera.

Duela gutxi ireki duzu ile-apaindegi berria. Nolatan erabaki zenuen negozio honekin hastea?

Hasiera batean, Lasarte-Orian lan egiten nuen bizartegi batean. Usurbilen egin nituen ikasketak umetan eta jende asko ezagutzen dut herrian. Konturatu nintzen herritar asko Lasartera joaten zirela ilea moztera eta herrian bizartegi baten beharra zegoela sentitu nuen. Ideia horri jarraiki, lokalak begiratzen aritu nintzen eta Udalak martxan daukan Usurbil Zabalik proiektua aprobetxatzea erabaki nuen bizartegia irekitzeko. Pare bat lokal ikusi nituen eta niretzat garrantzitsuena kristalezko leiho handiak izatea zen kanpotik ondo ikusteko barruan zein lan egiten nuen. Negozio berriak irekitzean jendeak zer egiten duzun ikustea garrantzitsua iruditzen zait, gero horren arabera erabakitzen baitute sartzea edo aurrera jarraitzea. Beste lokal bati begia botata neukan, baina beste batek hartu zuen azkenean. Ebakuntza bat egin behar izan zidaten eta errekuperaketa prozesua luzatu egin zitzaidanez, lehen aukera beharrean bigarren honekin geratzea erabaki nuen. Patinete elektrikoan nenbilela muturrez aurrera erori eta masailezurra lau zatitan hautsi nuen eta hortzak apurtu zitzaizkidan. Jende asko ibiltzen da patinete elektrikoan eta geroz eta istripu gehiago gertatzen dira. Herrian ere jende asko ikusten dut patinetean eta oso azkar ibiltzen. Niri istripu horrek autoestiman eragin zidan, eta neurri batean horrek eman zidan indarra proiektu honekin aurrera jarraitzeko. Lokalari zaharberritze lan handiak egin behar zitzaizkion, baina azaroan mutil lagunaren laguntzaz pixkanaka egin eta martxoan ireki nuen bizartegia.

"LOKALAK LEIHO HANDIAK IZATEA GARRANTZITSUA DA, EGITEN DUDAN LANA ONDO IKUS DADIN"

"HONA ETORTZEN DIREN GEHIENAK GAZTEAK DIRA. JENDE HELDUA ERE HURBILTZEN DA BIZARTEGIRA"

Zer moduzko harrera izan du? Bezeroak lortzen ari al zara?

Oso ona, jendea etortzera animatu da. Ume ugari etortzen zaizkit eta kuadrilan etortzen direnez, gainontzekoek borobilean eserita itxaroten diote bizartegiaren barruan. Asko gustatzen zait sortzen den giroa eta bizartegiak modan daudenez, bezeroak modan dauden orrazkera eta mozketa ideiekin etortzen zaizkit. Izen guztiak ezagutzen dituzte, gainera. Ez dakit sare sozialen eragina izango den, baina “marrazoaren mozketa” eta halakoak eskatuz etortzen zaizkit. Oso ideia modernoekin etortzen zaizkit eta deigarria egiten zait hori Usurbil bezalako herri batean. Lasarten lan egiten nuenean normalagotzat hartzen nuen atzerritar gehiago egoten zirelako eta beste herrialde batzuetan orrazkeretan eta halakoetan bestelako modak jarraitzen dituztelako, baina Usurbilen harritu egin nau horrek. Denek dakizkite modan dauden orrazketa eta mozketen izenak eta degradatuak ia egunero egiten dizkiet. Marrak eta halakoak ere eskatzen dizkidate, baina hori gaztetxoenek batik bat. Estetikan glow up handia nabaritu dut. Bezeroekin familia txiki batean bezala sentitzen naiz.

Nolako bezeroak dituzu? Gazteak, zaharrak…

Gehienak gazteak dira. Bizartegia betetzen bada, gazteei esker da. 12 urtetik 20 urte bitartekoak izaten dira gehienak. Hala ere, jende helduagoa ere etortzen da 40-50 urte ingurukoak edota helduagoak direnak 80 bat urtekoak. Haurtxoak ere etortzen dira, baina

nire negozioaren pilareak gaztetxoak dira.

Zaila da negozio bat zerotik hastea? Lan burokratiko asko egin behar da?

Lehenengo eta behin, negozio bat ireki baino lehen merkatuaren beharrak aztertzea ezinbestekoa da. Bizartegi bat Lasarte-Orian irekitzeak orain-txe bertan ez luke zentzu berezirik izango lau edo bost badaudelako. Beraz, Usurbilen halako negozio bat irekitzea egoki izan zitekeen erabaki behar nuen lehendabizi. Ondoren, Udalean inbertsio-plana, bideragarritasun-plana eta halako zenbait kontu egin nituen.

Udaletxean jakinarazi zidaten Andoaingo udaletxeko langile batek ekintzailetza planetan eskarmentu handia duela eta hark lagunduko zidala ere esan zidaten. Hark gidatu ninduen lan burokratiko horretan. Zaila izaten da hastea eta buruhauste ugari sortu zizkidan burokraziak, eta nolaez, zaharberritze lanek. Ordu luzeak pasa nituen dena prestatzen eta antolatzen honaino iritsi arte. Usurbilgo udaletxearen eta Andoaingo teknikariaren laguntzaz asko erraztu zitzaidan prozesua eta oso eskertuta nago.

"Orain bizartegiak modan jarri dira degradatuengatik eta halako teknikengatik".

Orain zure negozio propioa ireki duzu. Asko aldatzen dira eginbeharrak?

Nire nagusia zoragarria zen eta askatasun osoz lan egiteko aukera ematen zidan. Hala ere, zu zarenean nagusia gauza gehiago dituzu buruan eta negozioa aurrera eramateko ideia berriak behar dira. Beste mentalitate batekin hartu behar dira gauzak, eta horretan aldaketa nabarmena nabaritu dut.

"ZU ZURE NAGUSIA ZARENEAN, GAUZA GEHIAGO HARTU BEHAR IZATEN DIRA KONTUAN"

"ILE-APAINKETA IKASKETAK EGITEAN, EZ DUTE BIZARGINTZARI BURUZ EZER IRAKASTEN"

Gizonezkoen bizartegia da zurea. Zergatik egiten da oraindik ere ile-apaindegietan genero bereizketa hori?

Orain bizartegiak modan jarri dira degradatuen kontuagatik eta halako teknikengatik. Ile-apaindegietan ez dago ezagutzarik bizargintzari buruz. Nik kurtso batzuk egin behar izan ditut bizargintzaz ikasteko.

Ile-apainketa ikasketak egitean, nik Zarautzen egin nituen, ez dute bizargintzari buruz ezer irakasten. Kurtsoak egin edo zeure kabuz ikasi beharra daukazu bizarrak egiten eta bizargintzari lotutako kontzeptuak ikasten. Esango nuke formakuntzagatik daudela bereiztuta bi arloak.

Giroa ere ezberdina da. Hasieran asmoa neukan azazkalak egitea ere eskaintzeko, lizentzia ere badaukat. Hori aurrerago egiteko asmoa daukat. Formakuntza badut azazkalak egiteko ere eta estetika arloa izugarri gustatzen zait. Etorkizunean gustatuko litzaidake beste disziplina batzuk ere eskaintzea.

"Estilo kontuetan aldaketak etengabeak dira"

Asko aldatzen da ileari lotutako moda gizonezkoen artean ala beti gauza berdintsuak eskatzen dituzte?

Etengabeko aldaketan dagoen arloa da. Ni etxetik egunero mozketak ikusita eta izen berriak ikasita etortzen naiz. Milaka izen daude eta berritu egiten dira uneoro. 60ko hamarkadatik gaurdaino egon diren mozketak milaka dira eta aldaketa ikaragarriak izan dira. Hori bai, moda kontuez ari garenean, arropan bezalaxe, zenbait mozketa itzuli egiten dira. Batzuetan 90eko hamarkadako ideia batetik abiatu eta egungo teknikak nahastuta egiten ditugu mozketa berriak. Bizarrak egiteko aurpegiaren forma hartzen dut kontuan. Egia esan, Usurbilen ez ditut horrenbeste bizar egin. Lasarten gehiago eskatzen zizkidaten. Ez dakigu hemendik 20 urtera zer izango den, baina espero dut horrela jarraitzea denak. Beti esaten dugu negozio honek etorkizuna duela, ileak beti jarraitzen duelako hazten.

Orain lan asko robotak hasi dira egiten edo inteligentzia artifizialak, baina ez dut uste inork robot bati ilea mozten utziko liokeenik, azazkalak egiten edota bibotea depilatzen edo nik, behintzat, ez.

Ekintzaileekin solasean

Negozio berriak zabaldu dituzten herritar gehiago elkarrizketatuko ditugu datozen asteetan:

- Andoni Zubeldia, nutrizionista.
- Aitziber Rubio eta Andres Trigo fisioterapeutak.
- Birna Cruz, Andatzako kudeatzailea.
- Mari Mar Gomez, coach-a.

Ikasleen oihalezko ahozapiak zintzilik jangelan, eta etxera garbitzera eramateko prest.

Paperezko zapiak oihalezkoengatik aldatu dituzte

Zubietako Eskola Txikian paperezko ahozapiak murrizteko proiektua jarri dute martxan ikasturteko azken hiruhilekoan.

Zubietako Eskola Txikian paperezko ahozapiak murriztu eta jangelatik ateratzeko proiektua jarri dute martxan ikasturteko azken hiruhilekoan. Hori lortzeko, oihalezkoak erabiltzen hasi dira jangelan. Zero zabor kudeaketa egin asmo dute eta horretarako, ikasleek modu jasangarrian kontsumitzen ikastea du helburu proiektuak.

Ikasleak eskolako hondakinen kudeaketa mota berri horrekin gustura agertu dira eta eskolako konpostajean egiten duten lanean aldeak nabaritu dituzte: "Hondakinak gutxitu eta planetari laguntzen ari gara, eta hori oso ideia ona iruditzen zaigu", esan dute jangelako erabiltzaile batzuek. Asteazken eta ostiraletan konposta egiten dute eta bertatik ateratako ongarria eskolako baratzean erabiltzen dute.

Bakoitzak ahozapi bana du jangelan eta ordezko bat apalean gordeta. Hala, ostiraletan zapia garbitzera eramaten dute etxera eta astelehenean berriro ere eskolara itzultzen dute. "Etxean garbigailuan garbitzen dugu zapia astero. Gurasoak arduratzen dira horretaz, baina baita geu ere", jakinarazi dute ikasleek.

Lehen emaitzak ikusten ari dira zentroan eta irakasleak zein ikasleak oso gustura daudela ikusita, gurasoen iritziak ere bilduko dituzte datozen asteetan proiektuak emandako fruituen balorazioa egiteko.

Eskolan badute hurrengo ikasturterako beste ideiarik ere Zero Zabor ekimenaren baitan aurrera pausu gehiago emateko. Jangelako arduradunek plastikozko edalontziak kristalezkoengatik aldatzeko asmoa agertu dute eta oraindik bilera batzuk eginda, behin betiko erabakia hartu behar badute ere, proiektu hori mahai gainean daukate hondakinak murrizteko.

Zubietara ere iritsi da "Usurbil, goazen kalera" ekimena.

Mendi bideetan barna paseotxoa osatzen gazteak eta antolatzaileak.

Tipi-Tapa, Zubietako eskolakoekin batera

Herri osoaren elkargune eta zaintzarako topaleku bilakatu da "Usurbil, goazen kalera" ekimena, apirilaren erdialdean martxan jarri zutenetik. Ekaina amaiera bitarte, asteartero ari dira elkartzen herritarrak eta gerora irailetik aurrera jarraipena emango diote dinamikari. Ordu eta erdiz paseotxoa ematen dute taldean. Helburua herriko zaintza ekosistema sortu eta indartzea da. Zubietaren kasuan, Zubietako eskolako lagunak ari dira ekimen honen antolakuntzaz arduratzen.

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Pisua salgai Aginagan, Elutx kalean. 3 logela, 2 bainugela eta sukaldea. Garaje marra eta trastelekua barne. 685711912.

ALOKAIRUAN

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoa da: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

Oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki baten bila gabiltza. 627184674

Lursail ez urbanizagarri baten bila nabil Usurbilen, Aginagan edo Zubietan. 617 771 303.

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA!KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Garajeko marra bat eskaintzen da errentan hartzeko, herriaren erdialdean. 636601644.

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. 652 765 583.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Usurbilgo Andatza tabernan lan egiteko, zerbitzari eta sukalde laguntzaile/sukaldari baten beharrean gaude.Garrantzitsua esperientzia izatea. Deitu 670654272 edota bertatik pasa.

Emakume bat, interna bezala, lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen. 624744514.

Interna bezala, lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen 641136135.

Usurbil edo inguruetan garbiketa lanak egiteko prest, 74745055

Saizarren zerbitzaria behar da, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 649 844 727.

Aginaga sagardotegian txotx garaian larunbat eguerditan zerbitzaria behar da. 943 366 710.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Etxeko garbiketako lanetarako nahiz toki gehiago garbitzeko lan bila nabil. Harremanetarako, hona deitu: 632 909 058.

Umeak zaintzeko prest nago, esperientzia askorekin, 695 18 41 79

Garbiketa lan orokorrak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko, lan bila nabil. 607455413

Pertsona helduen zein haurren zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Baita zerbitzari edo garbiketa lanetarako ere. 687126811

BESTELAKOAK

Pertsona helduentzako gurpildun aulkia salgai,berri-berria. Inovys II RG C markakoa. Oinak altuan jartzeko posizioa dauka eta burua eusteko soportea . Intesatuak deitu 666894283 telefono zenbakira (Ana).

Markel Korta, Gipuzkoako eskolarteko txapeldun

Emaitza ezinhobeekin nagusitzen ari da Markel Korta Fernandez eskaladan. Gipuzkoako eskolarteko txapelketa irabazi du aurten. Iragan hilabetean, Euskadiko boulder txapelketan hirugarren postuan sailkatu zen eta ordutik Euskadiko selekzioarekin Espainiako Kopan ari da lehiatzen. Tarte honetan, duela hiru asteburu Euskadiko zailtasun eskalada txapelketan hirugarren postua erdietsi du.

Markel Korta eskalatzailea.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Osteguna, 30	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Ostirala, 31	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Larunbata, 01	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Igandea, 02	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Astelehena, 03	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Asteartea, 04	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Asteazkena, 05	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Osteguna, 06	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Ostirala, 07	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Larunbata, 08	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Igandea, 09	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

SABORIDO RODRIGUEZ, MIREN: Mañe i Flaquer plaza, 6 Hernani 943 57 64 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:
COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak:

Posta elektronikoa
Mezua bidali *erredakzioa@noaua.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta ipini nahi duzun testua.

Bulegoa
Etor zaitez gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:
Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

Pilota partidak

Gipuzkoako Udaberri Txapelketa (errendimendua) Infantilak, 3. maila

Maiatzak 30 osteguna
18:00 Usurbilgo frontoian:
- Pagazpe
- Goierri 2

Usurbilgo kadeteen txapelketa:
- Lapke
- Ilunpe

HILDAKOAK

Mari Carmen Arostegi Oiarzabal
Maiatzaren 22an hil zen, 82 urterekin

Joxe Ramon Sarasola Alzaga
Maiatzaren 23an hil zen 81 urterekin

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

ASTEAZKENA 29

USURBIL 'Memoria berriak' idazketa-tailerra Yolanda Arrietarekin

Yolanda Arrietak idazketa-tailerra eskainiko du maiatzaren 29an (asteazkena) eta ekainaren 11n (asteartea).
17:30 Sutegi udal liburutegian.

OSTIRALA 31

USURBIL Sormen tailerra Zorione Mendezekin

8-10 urte arteko haurrei zuzendua. Izen-ematea: aurrez eman beharko da liburutegian.
17:30 Sutegi udal liburutegian.

USURBIL Sareren mobilizazioa

Euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen aldeko mobilizazioa.
20:00 Mikel Laboa plazan.

LARUNBATA 01

USURBIL Aitzaga KE-ren 30. urtemuga jaialdia

13:00 Ekitaldia. 13:30-14:00 Fanfarrikant Brass Band.
14:00 Herri-bazkaria Askatasuna plazan.18:00 Fanfarrikant Brass Band.19:30 Gunearen irekiera Dj Jotatxorekin. 20:00-23:00 Bokatak afaltzeko aukera izango da. 22:00 Kontzertuak: Olaia Inziarte, Delirium Tremens, Zea Mays, Dj Jotatxo. 06:00 Gunearen itxiera.
Sarrerak: usurbilkultura.eus plataforman eta Aitzagan salgai.
Egun osoko jarduera.

Txapelketaren xehetasunak Iruin sagardotegian eskaini zituzten.

Euskal Herriko Egurrezko Sagardo Txapelketa bueltan da

Euskal Herriko Egurrezko Sagardo Txapelketaren bosgarren edizioa ekainaren 9an jokatuko da, Aginagako eliza zaharrean. Dena den, botilak aurkezteko epea ostiral honetan amaituko da. Interesatuek Alkartasuna kooperatibara jo behar dute.

Aginagako Eliza Zaharrean

Txapelketa honen lehen edizioak Sagardo Egunean ospatu ziren. 2022koa ordea, Usurbilgo San Tomas azokan egin zen. Iazko etenaldiaren ondoren, bueltan da sariketa. Naiz agerkari digitalaren arabera, ekainaren 9an jokatuko da txapelketa eta ez Usurbilen, baizik eta Aginagan.

Afizionatuei zein profesionalei zuzendua

Egurrezko sagardo txapelketan parte hartzeko epea maiatzaren 31n amaituko da.

Botilak Usurbilgo Alkartasuna kooperatiban aurkeztu behar dira. Eta antolatzaileek aditzera eman dutenez, afizionatuek nahiz profesionalek eman dezakete izena.

Epaile lanetan Maider Larrañaga sommelierra (Arteaga, Arrasate), Dani Corman (Basque Culinary Center, Donostia) eta Irati Amondarain enologoa (Andoain) arituko dira.

Txapelketako irabazleak 1.000 euro jasoko ditu eta Antton Olariagak propio eginiko garaikurra.

Sutegi udal liburutegiko deialdiak

Ekainak 4, asteartea

• 19:00 Javier Cercasen 'El Movil' liburuari buruzko gaztelarazko solasaldia Ana Merinorekin Sutegin. Aleak liburutegian eskuragarri.

Gipuzkoako pentsiodunen batzarra

Gipuzkoako pentsiodunen batzarra ekainaren 13an ospatuko da Sutegin, goizeko 10:00etan hasita.

Folckore eta Elektropapo Aitzaga aurrean

Aitzagaren urteurren ospakizunak ez dira ekainaren 1ean amaituko. Ekainaren 15ean larunbata, Folckore eta Elektropapo taldeak zuzenean arituko dira Aitzaga tabernaren aurrean. Kontzertua gaueko 21:00etan hasiko da.

Ane
ILEAPAINDEGIA
Artzabal
JUBILATUENTZAKO
AUKERARIK
HOBERENA
ARTZABAL BASERRIA 688 75 96 96

Noauaastekaria
USURBILGO ALBISTEAK KLIK BATEAN
ARGAZKIAK
ALBISTEAK
MOMENTUKO
BERRIAK
WWW.NOAUA.EUS
JARRAI IEZAGUZU
SARE SOZIALETAN
www.noaua.eus
@noauaastekaria
@noaua
Noaua Aldizkaria
@noauatb

orain errepublikak

Ekainak 9
bozkatu
ehbildu

ORAIN ERREPUBLIKAK

EUSKAL HERRIA · BAKEA · ANTIFAXISMOA

Solasaldia

Ekainak 5

Aimar Etxeberria
(EHBiduko nazioarteko taldeko kidea)
Sutegiko plazatxoan
19:00